

**Joana
Mendiboure
Garaia**

Oiartzungo
alkategaia

Candidata
a la alcaldía de
Oiartzun

ehbildu

**Maite
duzun
Oiartzun**

EGINGO DUGU.

Udal politika eraginkorrak herria eta herritarrak zaintzeko



Bizi dugun testuingurua aldakorra izaki, etorkizunak gauzak egiteko modu berriak eskatzen ditu. Jendartearen eta ekonomiaren arlo ugariarako proposamen zehatzak eta anbizioa ditugu. Udaleko ekonomia eta zerbitzuak bizitza, pertsonak eta ingurumena zaintzera bideratuko ditugu. **Zaintza** izango da garatuko ditugun **udal politiken iparrorratza**.

Oiartzuar guztion ongizatea zaintzea izango da gure lehentasunetako bat. Azken finean denok ditugulako oinarrizko premia berak. Aurrera egiteko babesa sentitu, seguru sentitu, norbere bizitza amesteko gai izan eta bakoitzak nahi duen modura bizitzeko ausardia izatea. Udalaren eta herritarren elkarlanean oinarritutako zaintza-sistema berritzaileak sustatuko ditugu. Horrez gain,

EGINGO DUGU.

Oiartzungo Udaleko 1. **plan feminista jasotako ekintza-plana** burutuko dugu, esaterako emakumeen ahalduntzerako neurriak hartuz edo Oiartzun emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko herria izan dadin lan eginez.

Herritarren ongizatea ez da ulertzen kohesio sozialik gabe. Kultura eta hizkuntza dira kohesio horren funtsezko elementuak. **Euskararen eta euskal kulturaren transmisioak ere proposamen berritzaileak** behar ditu, etorri berrientzako harrera plan integrala garatzea, adibidez. Euskalgintzako hainbat eragile Landetxe eraikinean kokatu izanak aukerak irekiko dizkigu.

Gure ingurumena zaintzeko **trantsizio eko-soziala landuko dugu**. Energian eta elikaduran dugun menpekotasunari aurre egiteko, esaterako, energia komunitateak sortzen lagunduko dugu eta lehen sektorea eta bertako produktuen kontsumoa sustatu.

EH Bilduren legealdietan udalak sintonia handia lortu du oiartzuarrekin. Horrela jarraituko dugu herritarrak entzuten, elkarte eta mugimendu desberdinetako kideekin elkartzen eta auzoetan batzarrak egiten. Eta ondoren, **gizarte bezala dauzkagun erronka konplexuei lankidetzta publiko-komunitario handiagorekin** helduko diegu. Lehentasanak adostu, kudeaketa hari finez josi eta esaten den hori egingo dugu. Emandako hitza bete.

ehbildu

Políticas municipales eficaces para el cuidado del pueblo y de la ciudadanía

El futuro requiere nuevas formas de hacer las cosas. Tenemos propuestas concretas y ambiciosas. Fortaleciendo la comunidad orientaremos la economía y los servicios municipales hacia el cuidado de la vida, de las personas y del medio ambiente.

Cuidar el bienestar de los y las oiartzuarras será prioritario. Promoveremos sistemas de cuidado innovadores basados en la colaboración municipal y ciudadana. Además, ejecutaremos el plan de acciones recogido en el 1er plan feminista del Ayuntamiento.

El bienestar de la ciudadanía no se entiende sin la cohesión social, y la cultura es un elemento fundamental de esta cohesión. Para ello, **la transmisión del euskera y de la cultura vasca requiere propuestas innovadoras**, por ejemplo, un plan integral de acogida para las personas recién llegadas.

Abordaremos una transición eco-social, centrada en la eficiencia energética y una movilidad más sostenible. Favoreceremos la creación de comunidades energéticas y fomentaremos el sector primario y el consumo de productos locales.

El modelo de gobernanza de EH Bildu es participativo y transparente y ha conseguido una gran sintonía con la ciudadanía. Seguiremos escuchando a la ciudadanía y **abordaremos los retos con una mayor cooperación público-comunitaria**.



Gure taldea

Nuestro equipo

Oiartzun herri bizia da eta ezaugarri horri erantzuten dio ere EH Bilduren hautagaien zerrendak. Oiartzun hobetzeko prest dagoen lan taldea gara, Udalean esperientzia dugunokin eta gogotsu gatozen kide berriekin osatutakoa. Herria bizi dugu, auzoak ezagutzen ditugu eta herri mugimendu anitzetako kideak gara. Pertsona prestatuak gara, erabakiak anbizioz hartzeko eta erabateko konpromisoz jarduteko prest dagoen lantaldea.

Oiartzun es un pueblo vivo, característica a la que responde también la lista de candidatos y candidatas de EH Bildu. Somos un equipo de trabajo dispuesto a mejorar Oiartzun, formado por personas con experiencia en el Ayuntamiento y otras nuevas que nos hemos unido con ganas. Vivimos el pueblo, conocemos los barrios y formamos parte de muchos movimientos populares. Somos personas formadas, un equipo de trabajo dispuesto a tomar decisiones con ambición y total compromiso.

1 16 3 17 19 5 8 23 6 21 11

**1. Joana Mendiboure Garaiar.**

Ugaldetxo, 46 urte. Orioko Ikastolako zuzendaritzako kide eta Laboreko Lehendakaria.

2. Agustin Lekuona Irastorza.

Karrika, 50 urte. Ingeniari tekniko mekanikoa. Azken 4 urteetan Hirigintza zinegotzia.

3. Olaia Lasa Olaziregi.

Ugaldetxo, 36 urte. Gizarte hezitzailea. Azken 4 urteetan Ongizate zinegotzia.

4. Garazi Urdampilleta Astibia.

Karrika, 31 urte. Lehen Hezkuntzako irakaslea eta herri mugimenduko kidea.

5. Ibon Mitxelena Fernandez.

Gurutze, 49 urte. Kimikaria eta ekonomia sozialeko proiektuetan aritua.

6. Nora Velez del Burgo Zalakain.

Elizalde, 28 urte. Euskara irakaslea eta Oiarzango Feministen Asanbladako kidea.

7. Jexux Olaziregi Bagües.

Elizalde, 38 urte. Historian eta Kazetaritzan lizentziatua. Herri mugimendutan aritua.

8. Edorta Fernandez Etxepeteleku.

Ugaldetxo, 35 urte. Goi Mailako diseinu grafikoa. Oiarzun Kirol Elkarteko kidea.

9. Oihana Irastorza Gonzalez.

Ergoien, 43 urte. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua.

10. Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi.

Ergoien, 40 urte. Euskara irakaslea eta euskalgintzan aritua.

11. Ekain Susperregi Ibaguren.

Iturriotz, 25 urte. Informatikaria eta dantzaria.

12. Jon Albisu Mendiburu.

Karrika, 43 urte. Garbitaniako langilea.

13. Ibintza Iragorri Iriarte.

Elizalde, 40 urte. Oiarzango Udal Ikastola Partzuergoko irakaslea.

14. Intza Mitxelena Ugaldede.

Arragua, 21 urte. Arragua.

15. Amalur Arbelaz Arbelaz.

Iturriotz, 25 urte. Iturriotz.

16. Asier Gaston Aldezabal.

Elizalde, 40 urte. Elizalde.

17. Irati Izagirre Beloki.

Altzibar, 35 urte. Altzibar.

18. Juan Mari Arabolaza Lizarralde.

Gurutze, 49 urte. Gurutze.

19. Olga Leibar Mendarte.

Elizalde, 38 urte. Elizalde.

20. Zigor Goikoetxea Retegi.

Altzibar, 35 urte. Altzibar.

21. Eneritz Arbelaitz Sarasti.

Altzibar, 35 urte. Altzibar.

22. Joxe Mari Mitxelena Kazabon.

Arragua, 40 urte. Arragua.

23. Aiora Perez de San Roman Uria.

Elizalde, 40 urte. Elizalde.

24. Jexux Leonet Elizegi.

Karrika, 35 urte. Karrika.

Etorkizunera begira, herritar guztientzako proiektua dugu

GARAI BERRIEK ESKATZEN DITUZTEN PROPOSAMENAK PREST DITUGU. AZKEN URTEETAN EGINDAKO DIAGNOSTIKO ETA PLANEI ESKER, BADAIGU OIARTZUN HOBETZEKO ZER EGIN BEHAR DUGUN. KUDEAKETA ON BATEK HERRIA ETA HERRITARRAK ONGI EZAGUTZEA, AURREIKUSPENAK EGOKI EGITEA ETA ERABAKI ANBIZIOTSUAK HARTZEA ESKATZEN DU.

GARDENTASUNA ETA ELKARLANA OINARRI

Proiektu sendoa eta arloz arloko proposamen zehatzak ditugu gardentasunean eta elkarlanean Oartzunek aurrera egiten jarrai dezan.

- Oartzuarrek udaleko tramiteak eroso egiteko **arreta gune zentralizatu**a sortuko dugu. Bertan bideratu ahal izango dira udaleko agiriak eta gainerako tramiteak.
- **Gaztetoentzako topalekua** sortuko dugu. Herritar bezala garatzeko gune segurua eta hezitzaileek lagundua eskainiko diegu.
- Oartzungo zortzi auzoak lotzen dituen **bidegorrian mantenu lanak** egiteaz gain, **komun berria** egingo dugu.
- Behar gehien duten pertsonen etxebizitza eskubidea bermatzeko **alokairu sozialeko** eta zuzkidurako **etxebizitza parkea** zabalduko dugu.
- **Altzibarren frontoi estalia** egingo dugu.

- Haur eta familiei begira, **herrian parke estalia egingo dugu**.

- Oartzunentzat eta eskualdearentzat horren garrantzitsuak diren **industria poligonoak** berritzen bukatuko dugu, bertako 7000 lanpostuak mantendu eta poligonoen erakarpen-mailari eusteko.

- Herriko denda txikiekin elkarlanean jarraituko dugu. 80.000€ inbertituko ditugu **tokiko ekonomia** sustatzeko eta herriko bizia indartzeko.

- **Udaleko webgunea** berrituko dugu herritarrek udalean egiten den lanaren berri zuzena izan dezaten eta Udalaren jarduera gardenagoa egiteko.

- **Partehartzerako gune seguruak** sortzen jarraituko dugu. Adin, genero, jatorri eta interes desberdinetako **herritarrak entzun** nahi ditugu, eta herriko eragileekin, dendari txikiekin, enpresekin... elkarlana sustatu.



▲
Altzibarren frontoi
estalia egingo dugu.

Herritar guztien

ongizatea zaintzeko

proposamen zehatzak

ditugu.

Tenemos un proyecto de futuro para toda la ciudadanía

TRANSPARENCIA Y COOPERACIÓN

Tenemos un proyecto de gestión y acciones concretas por áreas para que Oiartzun siga avanzando.

- Punto de atención centralizada para los trámites del Ayuntamiento.
- Nuevo espacio de encuentro para los y las más jóvenes.
- Obras de mantenimiento del bidegorri y un nuevo aseo.
- Viviendas de alquiler social y dotacional.
- Un frontón cubierto en Altzibar.
- Un parque cubierto para las familias.
- Regeneración de polígonos industriales.
- 80.000€ para impulsar el comercio local.
- Nueva página web municipal.
- Espacios de participación seguros.

Zaintza erdigunean izango duen herria helburu

Oartzuar guztien ongizatea bermatzeko egitasmo zehatzak ditugu



- **Gizarte zerbitzuak indartu** eta berrantolatuko ditugu Ferriñenen, herriko plazan. Sail honen bidez herritar guztiek bizitza duina izan dezaten lan egingo dugu, bazterkerian inor gera ez dadin.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua zabaltzen jarraituko dugu **asteburuetakota eta larrialdietako zerbitzua** indartuz.
- Etxez etxeko langileen **lan-baldintzak hobetuko** ditugu sektore feminizatua delako.
- Bakardade ez hautatuan dauden herritarrak **komunitatean txertatzeko sarea** sortuko dugu.
- **Zahartze aktiboa** lortzeko bitartekoak jarriko ditugu eta **aurrekontua bikoiztu**. Gazte Izanak elkartearekin eta herriko beste taldeekin elkarlanean jardungo dugu.

Un pueblo que pone el cuidado en el centro

- Potenciaremos y reorganizaremos los servicios sociales en Ferriñene. Vamos a trabajar para que nadie quede en la exclusión.
- Ampliaremos el servicio de ayuda a domicilio.
- Mejoraremos las condiciones de trabajo del personal de este servicio.
- Crearemos una red para la inclusión de las personas en situación de soledad no elegida.
- Pondremos los medios para lograr un envejecimiento activo, duplicando el presupuesto y colaborando con las asociaciones del pueblo.

Herriko eragileekin elkarlanean, kultura plan propioa landuko dugu

Oiartzun kulturaren plaza dinamikoa izan dadin lan egingo dugu



Kultura da harreman komunitarioak indartzeko, aniztasunari balioa emateko eta erreferente sinboliko berriak sortzeko elementu egituratzailea. Oiartzungo kultur adierazpenen beharrei erantzuteko eta kultur proposamena zabaltzeko plana zehaztuko dugu.

- **Ondarea zaindu** eta transmisioan eragiten jarraituko dugu, Arizmendienea etxea, Beloaga gaztelua edota ondarearen webgunearen bitartez.
- Oiartzundik Euskal Herriari begirako **kultur eredu propioa** sortzen jarraituko dugu herriko eragileekin.
- Kulturarako eta, bereziki, **oinarrizko eta hurbileko kultura** indartzeko ekimenak bultzatuko ditugu.
- **Kultura euskaraz** eta euskararentzat sortzen bultzatzeko programak sustatuko ditugu.
- **Kultur programa bateratu eta anitza** bultzatzeko baliabideak eskainiko dizkiegu herriko eragile eta elkarteetara.

La cultura es el elemento estructurante para fortalecer las relaciones comunitarias, poner en valor la diversidad y crear nuevos referentes simbólicos.

- Continuaremos conservando y transmitiendo el patrimonio a través de la casa Arizmendienea, el castillo de Beloaga o la página web del patrimonio.
- Desde Oiartzun seguiremos creando un modelo cultural propio hacia Euskal Herria con los agentes locales.
- Impulsaremos iniciativas para la cultura y, en particular, para fortalecer la cultura de base y de proximidad.
- Potenciaremos programas de fomento de la cultura en euskera y para el euskera.
- Ofreceremos recursos a los agentes y asociaciones locales para impulsar un programa cultural conjunto y plural.

Elikadura burujabetzarantz urratsak

Elikaduraren bidez gure osasuna, ekonomia eta ingurumena
zainduko ditugu



- **Elikadura mahaia** sortuko dugu arloko eragileekin elikadura burujabe eta osasuntsurako eskubidearen alde.
- Lehen sektorerako bideratzeko **lur sailak** eskuratzen jarraituko dugu.
- **Lehen sektorerako dirulaguntza** lerroak indartuko ditugu (240.000€).
- Herriko **ekoizle eta denda txikien arteko zubilana** eta elkarlana bultzatuko dugu, bitartekariak saihesteko eta tokiko zirkuituak sortzeko.
- **Herriko azoka** berrindartuko dugu.
- **"Hemenguk" egitasmoa** indartuko dugu herriko produktuak ezagutzera eman eta merkaturatzeko.
- **Jantoki kolektiboetako menuak** bertako produktuekin egitea sustatuko dugu.

Pasos hacia la soberanía alimentaria

- Nuevos terrenos y subvenciones para el sector primario (240.000€).
- Impulsaremos la colaboración entre las y los productores y pequeños comercios del municipio.
- Reforzaremos el mercado local.
- Crearemos una mesa de alimentación.
- Potenciaremos "Hemenguk" para la comercialización y visibilización de los productos locales.
- Fomentaremos que los menús de los comedores colectivos estén elaborados con productos locales.

Energia burujabetzarantz urratsak

Klima aldaketa globalari erantzuteko tokiko neurriak hartuko ditugu



- Udaleko autohornikuntza maila hirukoiztuko dugu, **eguzki-plaka berriekin**.
- Oiarzungo **energia eta klima larrialdi planaren** lanketa eta exekuzioa egingo dugu.
- Herriko **eraikinen birgaitze energetikoa** bultzatuko dugu B kalifikazioa lortzeko.
- Kiroldegian **155 kWp-ko instalazio fotovoltaikoa** egingo dugu (160.000€).
- Aparkaleku publikoetan **ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak** jarriko ditugu.
- Udalak erosiko dituen **auto** berri guztiak **jasangarriak** izango dira.
- **Energia kontsumoa murriztuko** dugu udal eraikinetako eta kale argiteriaren efizientzia hobetuz.
- Herriko **energia komunitatearen** bidelagun eta parte izango gara. Azpiegiturak eskainiz eta dirulaguntzen bidez babestuko ditugu herritarren ekimen kolektiboak.

Pasos hacia la soberanía energética

- Realizaremos nuevas instalaciones de energías renovables.
- Elaboraremos y ejecutaremos el plan de emergencia energética y climática de Oiartzun.
- Impulsaremos la rehabilitación energética de los edificios del municipio para obtener la calificación B.
- Construiremos una planta fotovoltaica de 155 kWp en el polideportivo (160.000 €).
- Instalaremos puntos de recarga de vehículos eléctricos.
- Todos los vehículos que adquiera el Ayuntamiento serán sostenibles.
- Reduiremos el consumo energético.
- Fomentaremos y seremos parte de la comunidad energética del municipio.

Mugikortasun jasangarriagorantz, klima aldaketari aurre egiteko

Oinez, bizikletaz eta garraio publikoan mugitzeko neurri
eraginkorrak eta erosoak landuko ditugu



Eguneroko mugikortasuna jasangarriagoa izatea dugu helburu. Inbertsioak egingo ditugu mugikortasunerako eredu kolektibo eta iraunkorrak lehenetsiz.

- **Bidegorriko mantenua** hobetuko dugu.
- **Bidegorri sarea industriagunectara** zabaltzeko plangintza egingo dugu Oarsoalde mailan.
- **Txirrinden aparkalekuak** hedatuko ditugu.
- Oinezkoen segurtasuna bermatzeko **Rafael Pikabea eta Yon Oñatibia kaleak** berrantolatuko ditugu (800.000€).
- **Xorrola eta Taxibusaren** zerbitzuak zabalduko ditugu.
- **Donostiara eta ospitalera zuzeneko autobusak** jartzeko lan egingo dugu.
- **Mugi tarifen** prezio merkeak mantentzeko lan egingo dugu Gipuzkoako Garraio Agintaritzan.
- Foru Aldundiaren eskumenekoak diren AP8ko eta errepideetako **trafiko arazoci irtenbidea** bilatuko diegu elkarlanean.

Realizaremos inversiones priorizando modelos de movilidad sostenible y colectiva.

- Reforzaremos el mantenimiento del bidegorri.
- Crearemos nuevos aparcamientos para las bicicletas.
- Reordenaremos las calles Yon Oñatibia y Rafael Pikabea para garantizar la seguridad de las y los peatones (800.000€).
- Ampliaremos los servicios de Xorrola y Taxibus.
- Trabajaremos para conseguir líneas directas de autobús a Donostia y al hospital.
- Seguiremos defendiendo unos precios de Mugi asequibles.
- Trabajaremos con la Diputación para solucionar los problemas de tráfico en los accesos a la AP8 y carreteras de su competencia.

Herriko ekonomia sustatzeko egitasmoak ditugu

Balio erantsiko proiektuak mantendu eta berriak erakarriko ditugu



Lehen sektorean, industrian edota zerbitzuetan lanpostuak mantendu eta sortzeko proiektuak gauzatuko ditugu.

- Oiarzun eskualdeko ekonomiaren bihotza izaten jarraitzeko **industrialdeak indartuko** ditugu.
- **Ugaldetxo poligonoa** berritu eta bidegorritik lotura zuzena egingo dugu bertara (1.100.000€).
- Ugaldetxotik Lanbarrenerainoko industriaguneen biziberritzea amaitzean, **urteroko mantenu plana** martxan jarriko dugu.
- Industrialdeetako ibilgailu astunen **trafikoa bideratzeko proiektuak** landuko ditugu Foru Aldundiarekin.
- **Itturri** herriko merkatarien elkartearen diruz lagunduko dugu.
- Oarsoalde mailan **ekintzaileentzako espazio berriak** sortuko ditugu, baita bidelaguntza zerbitzua indartu ere.

Tenemos proyectos para mantener y crear puestos de trabajo en el sector primario, en la industria y en los servicios.

- Renovaremos el polígono Ugaldetxo y lo uniremos con el bidegorri (1.100.000€).
- Pondremos en marcha un plan de mantenimiento anual de todos los polígonos.
- Trabajaremos con la Diputación Foral para dar solución al tráfico de vehículos pesados.
- Ayudaremos económicamente a la asociación de comerciantes del municipio Itturri.
- Generaremos nuevos espacios de trabajo para las personas emprendedoras y reforzaremos el servicio de asesoría y acompañamiento a nivel comarcal.

Maite duzun Oartzun



**Maddalen
Iriarte
Okiñena**

Gipuzkoako
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidata a
Diputada General
de Gipuzkoa

Gipuzkoa 2023-2027

GIPUZKOAK POTENZIALITATE NAHIKOA DU GIPUZKOAR GUZTIEN BEHARRAK DEFENDATU ETA BABESTEKO. ORAIN DA MOMENTUA HERRIALDEAK DITUEN AUKERA GUZTIAK BALIATU ETA, POLITIKA PUBLIKOEN BITARTEZ, HERRITARREN EGUNEROKO BEHARRAK ASEKO DITUEN ALDUNDIA OSA DEZAGUN. ETENIK GABE LAN EGINGO DUGU, INOR ATZEAN UTZIKO EZ DUEN GIPUZKOA ERAIKI ETA EUROPAKO ERREGIO AURRERATUENEN PARE KOKATZEKO.

ERRONKA HANDIAK DITU GIPUZKOAK, TRANTSIZIO EKOLOGIKO ZEIN TEKNOLOGIKOAN JAUZI BAT EMATEKO ORDUA DA. INDUSTRIARI BULTZADA BERRIA EMANGO DIOGU, KALITATEZKO ENPLEGUAREN IKUR DENA. INOR ATZEAN UTZIKO EZ DUENA, ZAINDUA IZATEKO ESKUBIDEA BERMATUTA EGONGO DENA, DOAKOTASUNERANTZ DOAN SISTEMA OSATUKO DUGU ETA GARRAIO PUBLIKOA INDARTZEKO KONPROMISOA DUGU.

***EH Bildu gipuzkoarren
nahiak eta beharrak
hobekien ordezkatzeko
dituen proiektua da.
Nire konpromisoa: inor
atzean utziko ez duen
Gipuzkoa.***

Gipuzkoa herrialde industrialia izan da betidanik, baina azken urteotan pisua galdu du, bai BPGari zein lanpostuei dagokienez. Politika publiko aktiboak behar dira tendentzia hori aldatu eta industria aurreratu, berde, teknologiko, sozial, berdintasuneko eta pertsonengan zentratuta egongo dena bultzatzeko. Langileen parte-hartzea ardatz duena, herrialdean guztiz errotuta egongo dena.

Gipuzkoar guztiok dugu duin zainduak izateko eskubidea eta egun gipuzkoarren %23,2k 65 urte baino gehiago du. Zaintza sistema publiko-komunitarioa hedatuko dugu herrialde osoan, doakotasuneranzko trantsizioa osatuko dugu eta etxean zahartu eta bizi nahi duten pertsona horientzat zaintza lanak egiteko langileak kontratatzeke egun jasotzen duten diru kopurua handituko dugu.

Mugikortasun jasangarria krisi klimatikoari aurre egiteko ezinbesteko bitartekoa da, CO2 emisioak murriztea baitugu helburu. Kalitatezko garraio publikora ahalik eta bidaiari gehien erakarri behar dugu, maiztasunak handituz eta ibilgailu-flota berrituz.

**Mejorar para avanzar:
Aprovechando todas las
posibilidades que tiene
Gipuzkoa, para que nadie
se quede atrás.**

Gipuzkoa siempre ha perdido peso industrial en los últimos años, tanto en el PIB como en puestos de trabajo. Necesitamos políticas públicas activas que inviertan esa tendencia y promuevan una industria avanzada, verde, tecnológica, social, igualitaria y centrada en las personas. Apostamos por ahondar en la participación de las y los trabajadores en las empresas, afianzando el arraigo de las empresas estratégicas de Gipuzkoa.

Todas las personas tenemos derecho a ser cuidado de una manera digna: actualmente el 23,2% de la población guipuzcoana tiene más de 65 años. Desplegaremos un sistema de cuidados público-comunitario en todo el país, completando la transición hacia la gratuidad. Aumentaremos la ayuda económica que reciben actualmente para contratar personal para el cuidado de las personas que quieren vivir en su propio hogar.

La movilidad sostenible es fundamental para hacer frente a la crisis climática, reduciendo las emisiones de CO2. Debemos atraer al mayor número de pasajeros posible al transporte público de calidad, aumentando sus frecuencias y renovando la flota de vehículos.

Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



**Maddalen
Iriarte
Okiñena**

Gipuzkoako
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidata a
Diputada General
de Gipuzkoa

*Aprovechemos todas
las posibilidades que
tiene Gipuzkoa, para
que nadie se quede
atrás.*

■

Mejorar para avanzar

ehbildu

🐦 @MaddalenIriarte

📘 Maddalen Iriarte Okiñena

📍 maddaleniriarteokinena

🌐 ehbildu.eus

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bermatuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.